


## Bidebieta

# Zahar etxean bazkideak gutxi

Bidebietako zaharren egoitzak 19. urteurrena ospatuko du maiatza hasieran. Dena dela, arduradunak kezkatuta daude, bazkideak jaitsi direlako azken urteetan.



Zahar etxeak 19 urte egingo ditu maiatzean.

Laida Basurto

**A**zken bi hamarkadetan, auzoan gero eta zahar gehiago dagoen arren, zahar etxeko bazkide kopurua jaitsi egin da. 1983an garai hartako lehendakari Carlos Garaikoetxeak zahar etxea inauguratu ostean, 900 lagun egin ziren bazkide. Egun, aldiz, 420 dira Bidebietako egoitzako bazkideak. Zahar etxeko zuzendaritzak Udalak hartutako erabaki bati egozten dio bazkideen jaitsiera. Duela zenbait urte nork bere auzoko egoitzan soilik eman zezakeen izena. Egun, aldiz, jubilatuz

donostiarrek hiriko edozein udal egoitzatan izena eman dezakete. Udalaren erabakiak Erdialdeko egoitzetako bazkideen igoera eragin du, eta inguruko auzoetako egoitzetako bazkideen jaitsiera.

## Ikastaro ugari

Arazoak arazo, auzoko zaharren egoitzan bazkideentzako ikastaroak antolatzen ari dira etengabe. Aste honetan, esaterako, eskulan ikastaro berria hasiko da. Gainera, erlajazio taldea osatu dute ostegunetan, eta kultura orokorra jorrazteko ikastaroa ematen ari dira aste-

## Antzerkia Kontadoresen

Hilaren 26an, ostirala, antzerki ikastaroan parte hartu duten neska-mutilek antzezpena egingo dute Kontadores gaztelekuan. Emanaldia 20.00etan hasiko da.

lehenetan. Harrera oso ona duen beste jarduera bat bingoa da. Astelehenero eta ostegunero arratsaldeko 18.00etatik aurrera bingoan jolastera joan ohi dira hainbat bazkide. Dena dela, datozen asteotan galtzak bete lan izango dute zahar etxeko arduradunek. Maiatzaren 10ean eta 11n, hemeretzigarren urtemugaren ildotik, zenbait ekimen egingo baitituzte. Zorionak eta urte askotarako!

# LANGABEZIRAKO BABESAREN HOBEKUNTZA ORAIN!



UGT EUSKADIKO ZERBITZU FEDERAZIOA  
ERAUSOKO KATALINA 7-9 BEHEA

**MANIFESTAZIOA:**  
**MAITZAREN LEHENA**  
**11.30EAN**  
**ALDERDI EDERREN**